



Antsoingo
Udala
Ayuntamiento
de Ansoáin

Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal
2025 APIRILA-ABRIL / N° 43. ALEA

ANTSOAIN

Inauteriak 2025 Carnavales 2025

Argitaratzailea:

Antsoingo Udala.

Erredakzio Kontseilua:

Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.

Egilea: Heda Comunicación, S.L.

Argazkiak: Jon Urriza, Pablo García.

Ale kopurua: 4.700 ale.

Doako banaketa.

.....

Edita: Ayuntamiento de Ansoáin.

Consejo de Redacción:

Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.

Realiza: Heda Comunicación, S.L.

Fotografías: Jon Urriza, Pablo García.

Tirada: 4.700 ejemplares.

Difusión gratuita.

D.L. - L.G.: NA 942-2016

Antsoainen
dira txartel
bidez irekitzen
diren
edukiontzia

Ansoáin
estrena
contenedores
de apertura
con tarjeta

Nuevos actos
en mayo en
torno a la
memoria y
mujer

Ekitaldi andana
maiatzean,
memoria eta
emakumea
ardatz

JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES



Antsoingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin



Antsoingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

Urteko Kudeaketa Planean, berdintasuna, zaintzak, euskara, kirola eta jasangarritasuna ardatz

El Plan de Gestión Anual pone el foco en igualdad, cuidados, euskera, deporte y sostenibilidad

Espazio publikoa hobetzeko jarduketak ere aurreikusi ditu

Contempla también actuaciones para mejorar el espacio público

Udalak 2025eko Kudeaketa Plana onetsi du, aurtengo jarduketa ildoak eta lehentasunezko proiektuak ezartzeko. Ardatz nagusien artean, hainbat neurri hartuko dira Antsoain "Zaintzen duen Herria" ekimena finkatzeko, hala nola jantoki komunitarioaren bigarren fasea abian jartzea, dibertsitate funtzionala duten gazteen beharren azterketa egitea eta gizarte-eragileekiko sare lana sendotzea.

Era berean, genero berdintasunari eman nahi zaio bultzada hainbat ekintzaren bidez, hala nola jazarpenaren aurkako protokoloak eguneratuz, prestakuntza plana prestatuz eta Emakumeak Ahalduzko Eskola bultzatuz. Horrez gain, Sexu eta Genero Aniztasunerako Ekintza Plana (LGTBI+) bultzatuko da.

Bestalde, euskararen erabilera klubetan eta kirol jardueretan sustatzea proposatu da, bai eta haur eta gazteen artean ere, eta elkarlanean oinarritutako egi-

tura bat sortu Udalaren eta herritarren artean.

Kultur arloan, herritarren parte-hartzea eta kultur sorkuntza sustatu, gune eta programen irisgarritasuna hobetu, gizatalde ahulek kultura errazago eskuratzeko neurriak hartu eta memoria historikoaren arloan jardungo da.

Kiroletan, bestalde, hainbat inbertsio egingen dira Idaki irisgarriagoa egiteko; halako lanak bat egingen da nerabeek kirola egiteari ez uzteko eta, era berean, espezializazio goiztiarra saihesten duen kirol eskolen eredua finkatuko da.

Planak, halaber, hainbat jarduketa bildu ditu espazio publikoa eta hiri konfigurazioa hobetzeko, udal antolamendua optimizatzeko eta finantzen arloko jasangarritasuna bermatzeko.

Planaren garapenari buruzko informazio guztia www.ansoain.es webean egonen da eskura.

El Ayuntamiento ha aprobado su Plan de Gestión Anual 2025, que marca las líneas de actuación y los proyectos prioritarios para este año. Entre sus ejes principales figura la consolidación de Ansoáin como una "Comunidad que Cuida" con medidas como la puesta en marcha de la segunda fase del comedor comunitario, el análisis de las necesidades de jóvenes con diversidad funcional y el refuerzo del trabajo en red con agentes sociales.

También se refuerza el compromiso con la igualdad de género, con acciones como la actualización de los protocolos contra el acoso, un plan de formación y el impulso a la Escuela de Empoderamiento de Mujeres. Además, se impulsará el Plan de Acción de Diversidad Sexual y de Género (LGTBI+).

En materia de euskera, se propone fomentar su uso en clubes y actividades deportivas, así como en la

población infantil y joven, y crear una estructura colaborativa entre el Ayuntamiento y la ciudadanía.

En el ámbito cultural, se promoverá la participación ciudadana y la creación cultural, se mejorará la accesibilidad de espacios y programas, se adoptarán medidas para facilitar el acceso a la cultura de colectivos vulnerables y se actuará en el ámbito de la memoria histórica.

En el campo del deporte, se acometerán inversiones para hacer Idaki más accesible, se trabajará para reducir el abandono de la práctica deportiva en la adolescencia y consolidar el modelo de escuelas deportivas que evita la especialización temprana.

El Plan también contempla actuaciones para mejorar el espacio público y la configuración urbana, optimizar la organización municipal y garantizar la sostenibilidad financiera.



**TALLERES
PAMPLONA**

Hermanos Noáin, 58 · Ansoáin · T 848 411 434
www.tallerespamplona.com

Reparación de carrocería y pintura
Averías mecánicas y eléctricas
Mantenimiento de todas las marcas
10 Coches de sustitución
Amplio horario continuo de lunes a viernes, de 8:30 a 19:00 h
Descuentos en mantenimiento, franquicias y por ser cliente habitual

Antsoaingo Udala bere plan estrategikoaren xehetasunak azkentzen ari da

El Ayuntamiento de Ansoáin ultima los detalles de su Plan Estratégico

Planaren jomuga 2030. urtea da, iazko uztailan hasi zen garatzen eta aurtengo ekainean aurkeztuko da jendaurrean. Zortzi hilabete honetan egindako saioetan, Antsoaingo herritarrek lankidetzan aritu dira udalarekin, gogoz parte hartuta, ideiak emanaz. Gero, ideiak helburu bihurtu dira antsoaindarren bizikaltatea hobetzeko eta, halaber, helburuak betetzeko ekintzak zehaztu dira.

Ekarpenek hasierako diagnostikoa osatzeko balio izan dute. Gogoraraziko dugu Antsoaingo herritarrek, talde politikoak, udal zerbitzu teknikoak eta herriko talde eta elkarteak aritu zirela hasierako diagnostiko hura prestatzen.

Ondoren, planaren helburuak landu ziren, bai eta helburuak

lortzen laguntzeko ekintzak zehatzak ere. Ekintzetan hainbat gomendio bildu dira, hala nola herriko merkataritzaren aldeko neurriak hartzea, kultura eta berdintasuna gure herrian bultzatzeko neurriak garatzea, biztanleriaren zahartzeari erantzuteko moduko zaintza zerbitzuak handitzea eta euskarazko programak abian jartzea, besteak beste.

Sortu diren agiri guztiak udal webean daude eskura, “Antsoain Gara – Somos Ansoáin” lelopeko berariazko atalean.

Plan Estrategikoaren baitan, martxoan eta maiatzean hiru jardunaldi egingen dira, herritarrek parte hartzeko modukoak, udalak kirol instalazioez, behe solairuko etxebizitzetaz eta espazio publikoaz egindako azterlanak xeheago azaltzeko.



El Plan, con un horizonte 2030, comenzó a desarrollarse en el mes de julio del 2024 y será en junio de este año cuando se presente públicamente.

A lo largo de estos ocho meses se han desarrollado sesiones de participación en las que la involucración y colaboración de la ciudadanía de Ansoáin ha sido muy positiva, aportando sus ideas y convirtiéndolas en objetivos y acciones que mejoren la calidad de vida en su pueblo.

Estas aportaciones sirvieron para completar un diagnóstico inicial en cuya elaboración colaboraron, además de la ciudadanía de Ansoáin, los grupos políticos, los servicios técnicos municipales y los colectivos y asociaciones.

Posteriormente se trabajaron los objetivos del Plan y las acciones concretas que ayuden a alcanzarlos. Estas acciones recogen

diferentes recomendaciones como son la realización de medidas de apoyo al comercio local, el desarrollo de medidas para el impulso de la cultura e igualdad en el municipio, la ampliación de los servicios de cuidados que responda al envejecimiento poblacional o la puesta en marcha de programas de euskera, entre otras.

Todos los documentos que se han ido generando están disponibles en la web municipal, en un apartado específico bajo el lema de “Antsoain Gara – Somos Ansoáin”.

Dentro del marco de este Plan Estratégico, entre los meses de marzo y mayo se van a celebrar tres jornadas abiertas a la ciudadanía para informar y compartir de manera más detallada los estudios municipales realizados sobre Instalaciones deportivas, Viviendas en planta baja y Espacio público.

Txartel bidez irekitzeko edukiontzia ezarri dira gai organikoa eta errefusa biltzeko

Ansoáin estrena contenedores de materia orgánica y resto de apertura con tarjeta

■ Iruñerriko Mankomunitateak hainbat herritara zabaltzen du edukiontzia elektronikoki irekitzeko sistema. Besteak beste, Antsoainera, edukiontzi berriak joan den martxoaren 10ean jarri baitziren. Sistema aldatu da, jendeak hondakin organiko gehiago bereizi ditzan edukiontzira eraman baino lehen. Izan ere, hondakin organikoak hondakin guztien % 34,4 dira. Beste arrazoiak izan da gainontzeko edukiontzietan botatzen diren hondakin desagokiak murriztu nahi izatea; batez ere, errefusari dagokion edukiontzietan botatzen dena.

Horrenbestez, gai organikorako edukiontzia eta errefuserako edukiontzia (aurrerantzean, tapa grisarekin) irekitzeko giltzaren ordez **txartel elektronikoa bat edo app mugikorra** bat erabili behar dira. Gai organikorako edukiontzia nahiz errefuserako edukiontzia, bi-biek, pedal bat dute errazago irekitzeko. Txartelarekin edo app-arekin edozein egunetan irekiko ditugu bi edukiontzi horiek, hau da, hondakin "organikorako" edukiontzia (marroia) eta "errefusa" edo "gainerakoa" biltzeko edukiontzia (grisa).

Etxe bakoitzak bi txartel elektronikoa jaso ditu. Zerbitzu anitzeko txartelak dira, Eskualdeko Hiri Garraiorako txartel anonimo gisa ere balio dutenak. Gainera, garraio-txartelak kargatzeko edozein gunetan kargatu daitezke, bai eta "Recarga TUC" app-aren bidez ere.

Edukiontzia txartel bidez irekitzeko, pizte-botoia sakatu, txartela sentzorera hurbildu eta, behin irekiera desblokeatzen denean, tapa ireki beharko dugu, edukiontziko pedala zapalduz. Edukiontzia ere app mugikorraren bidez ireki daitezke. Horretarako, 'SIGMA MCP' aplikazioa jaitsi behar da Google Playn (Android) edo App Storen (IOS), eta kontaktuko helbide elektronikoa baten bidez ireki beharko dugu saioa.

■ La Mancomunidad de la Comarca de Pamplona continúa con la implantación del sistema de apertura electrónica de contenedores en varias localidades. Es el caso de Ansoáin, donde se estrenaron los nuevos contenedores el pasado 10 de marzo. El cambio de sistema tiene como objetivo el incremento en la separación en origen de la materia orgánica de los residuos, que representa el 34,4 % del total de los residuos generados. También se pretende reducir el número de impropios que se depositan en el resto de los contenedores, especialmente en el de fracción resto.

La implantación del sistema implica la sustitución de la llave de apertura del contenedor marrón de materia orgánica y del contenedor de resto (con tapa gris a partir de ahora) por una **tarjeta electrónica o app móvil**. Tanto el contenedor para materia orgánica como el contenedor para resto contarán con pedal para facilitar la apertura. La tarjeta o la app permitirá abrir todos los contenedores de la fracción "orgánica" (marrón) y de la fracción "resto" (gris) cualquier día de la semana.

Cada domicilio ha recibido dos tarjetas electrónicas. Se trata de tarjetas multiservicio que sirven también como tarjetas anónimas del Transporte Urbano Comarcal y pueden ser recargadas en cualquier punto de recarga de tarjetas de transporte y a través de la app "Recarga TUC".

Para abrir los contenedores con tarjeta hay que pulsar en el botón de encendido, acercar la tarjeta al sensor y, una vez desbloqueada la apertura, abrir la tapa pisando el pedal del contenedor. Los contenedores también se pueden abrir mediante app móvil. Para ello es necesario descargar la aplicación 'SIGMA MCP' en Google Play (Android) o en App Store (IOS), e iniciar sesión con una dirección de correo electrónico de contacto.

Oinez dabiltzan Hirien Sarea izan da Antsoainen bisita / Visita a Ansoáin de la Red de Ciudades que Caminan

■ Oinez dabiltzan Hirien Sarearen ordezkariak izan dira Antsoainen, bai eta Gea 21 ingurumen eta gizarte aholkularitza enpresarenak ere. Horrela, urtarilaren 23an, Espazio Publikoari buruzko jardunaldi bat egin zen udaletxean (argazkia), Ana Montalvánen eskutik, eta ibilbide bat udalerrian barna.

Antsoain 2013az geroztik da kide Oinez dabiltzan Hirien Sarean. Era-kundearen helburu nagusia da aire kalitate ezin hobea duten udalerrak sortzea, hau da, osasun-garriagoak, habitagarriagoak, jasangarriagoak eta erresilienteagoak, mugikortasun erdua eraldatuz.



■ Ansoáin ha recibido la visita de representantes de la Red de Ciudades que Caminan y de la consultora ambiental y social Gea 21. El día 23 de enero se celebró en el Ayuntamiento una jornada sobre Espacio Público (en la foto) a cargo de Ana Montalván y se realizó un recorrido por el municipio.

Desde 2013 Ansoáin forma parte de la Red de Ciudades que Caminan, una organización cuyo fin último

es generar municipios con óptima calidad del aire, más saludables, habitables, sostenibles y resilientes, transformando el modelo de movilidad.

Hasiak dira Zelaia parkea Udaletxe plazarekin lotzeko korridore berdearen lanak

■ Zelaia parkea Udaletxe plazarekin ekialdetik mendebaldera lotzeko korridore berdearen lanak abiarazi ditu Udalak. Beste lan batzuen artean, egungo zuhaitzak hobetu eta eite handiko zuhaitzak landatuko dira, itzal gunek sortzeko eta bero-irla efektua murrizteko. Era berean, txorko luzatuak sortuko dira hainbat zuhaitz eta landare jartzeko eta, drainatze jasangarriko hiri sistemak, euri ura bildu, iragazi eta bideratzeko, prozesu hidrologiko naturala imitatuz.

Lan guztiak Azpiegitura Berderako Planaren eta Hirigintza Integraziaileko Proiektuaren baitan daude.



Iniciadas las obras del corredor verde que une el parque Zelaia con la Plaza Consistorial

■ El Ayuntamiento ha comenzado las obras del corredor verde este-oeste que unirá el parque Zelaia con la Plaza Consistorial. Entre otras actuaciones, se mejorará el arbolado existente y se plantarán árboles de gran porte para generar zonas de sombra y reducir el efecto isla de calor. También se crearán alcorques corridos que alberguen varios árboles y plantas, y se implementarán sistemas urbanos de drenaje sostenible que permitirán recoger, filtrar y evacuar el agua de lluvia imitando el proceso hidrológico natural.

La actuación se enmarca en el Plan de Infraestructura Verde y el Proyecto de Urbanismo Innovador.



Antsoainek bere argiteria guztia berrituko du eraginkorragoa eta jasangarriagoa izateko

■ Udalak argiteria publikoaren hornikuntza eta instalaziorako kontratua atera du lizitaziora eta, aurreikuspenen arabera, datozen asteotan esleitu da. Osoko bilkurak proiektu hori lizitaziora ateratzea erabaki zuen urtarilaren 30ean, egungo instalazioak berritzeko eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko, hori ere ona izanen baita ingurumena zaintzeko eta kontsumo elektrikoan nabarmen aurrezteko. Horrela, argi tradizionalen ordeztu LED teknologiko argiak jarri eta telekudeaketa sistema bat ezarriko da, argiztapen mailak denbora errealean monitorizatu eta erregulatzeko, herriarren beharren arabera.

Guztira, 1.330.123 euroko inbertsioa egingen da, bere osan Ekologia Trantsiziorako eta Demografia Erronkarako Ministerioaren laguntzen bitartez finantzatu. Esleipena jasotzen duen enpresak sei hilabeteko epea izanen du lanak egiteko.

2023an eta 2024an, Sankapea, Lerín eta Ezkaba karriketako argiak berritu ziren, bai eta Udaletxe plazakoak ere, eta orain, udalerriko gainerako kaleetan jardungo da, 2025eko Kudeaketa Planean ezarritakoarekin bat.

Ansoáin renovará todo su alumbrado para hacerlo más eficiente y sostenible

■ El Ayuntamiento ha iniciado la licitación del contrato de suministro e instalación del alumbrado público, cuya adjudicación está prevista para las próximas semanas. El Pleno aprobó el 30 de enero licitar este proyecto, que modernizará las instalaciones existentes y mejorará la eficiencia energética, contribuyendo al cuidado del medio ambiente y a un ahorro significativo en el consumo eléctrico. Se sustituirán las luminarias tradicionales por tecnología LED y se instalará un sistema de telegestión que permitirá monitorizar y regular en tiempo real los niveles de iluminación según las necesidades de la ciudadanía. La inversión total para esta transformación asciende a 1.330.123 euros, financiados en su totalidad a través de ayudas del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico (MITECO). La empresa adjudicataria contará con un plazo de ejecución de 6 meses.

En 2023 y 2024 ya se renovaron las luminarias de las calles Sankapea, Lerín y Ezkaba, además de las situadas en la Plaza Consistorial, y ahora se va a actuar en el resto del municipio, tal y como recoge el Plan de Gestión Anual para 2025.

Jantoki komunitarioaren etapa berrirako atzera kontua

Cuenta atrás para la nueva etapa del comedor comunitario

Martxoaren 3tik 14ra bitarte izena eman duten 50 lagunek apirilean gozatuko dute jantoki komunitarioaren bigarren fasea eta, aurreratu zenez, hemendik aitzina, zerbitzua ordaindu egin beharko da. Zerbitzua 65 urtetik gorakoendako eta/edo desgaitasuna duen jendearendako da eta, berriz ere, bi modalitatetan eskaini da: etxean bertan (10 leku) eta Ostoki zentro komunitarioan (40 leku). Lau adierazle hartu dira kontuan jendea aukeratzeko: desgaitasun maila, elikadura arloko beharrak, sozializazio premiak eta diru-sarrerak edo errenta. Horrez gain, ordezkoen zerrenda osatu da adie-

razle bakoitzeko, lekua erreserbatutik. Inor ordeztu behar baldin bada, adierazle horretako ordezkoen zerrendan dauden artean egingen da eta, adierazle horretan ordezkorik ez badago, puntu orokor gehien dituen pertsonari eskainiko zaio. Tarifei dagokienez, urtean 30.000 eurotik gorako errenta dutenek 7,70 euro ordainduko dute. Hortik beherako errentek beherapenak izanen dituzte sei tartetan banaturik, hots, 20.000,01 - 30.000 eurora bitarteko errenta dutenek 5,78 ordainduko dute eta, beste muturrean, 5.000 euro baino gutxiago eskuratzen dutenek, berriz, 0,78 euro.

Las 50 personas que se inscribieron entre el 3 y 14 de marzo podrán disfrutar en abril de la segunda fase del comedor comunitario, que, tal y como se avanzó, ha pasado a ser de pago. El servicio, dirigido a personas mayores de 65 años y/o con discapacidad, se ha ofertado de nuevo en dos modalidades: a domicilio (10 plazas) y en el centro comunitario Ostoki (40 plazas). Para la elección de las personas se han tenido en cuenta cuatro indicadores: grado de discapacidad, necesidades alimentarias, necesidades de socialización e ingresos o renta. Además, se ha creado

una lista de personas suplentes por cada indicador con reserva de plaza. En caso de necesidad de sustitución se realizará entre la lista de personas suplentes en dicho indicador y en caso de no existir suplentes en ese indicador se ofrecerá a la persona que más puntuación global tenga. En cuanto a las tarifas, el precio para rentas superiores a 30.000 euros al año es de 7,70 euros, con reducciones para rentas inferiores en seis tramos que van desde 5,78 euros para rentas de 20.000,01 a 30.000 euros hasta 0,78 euros para rentas inferiores a 5.000 euros.

Prebentzio tailerrak Osasun Etxearekin elkarlanean / Talleres preventivos en colaboración con el Centro de Salud

■ Lapurbide eta Ostoki eguneko zentro komunitarioek, Osasun Etxearekin elkarlanean, bi prebentzio tailer antolatu dituzte 60 urtetik gorakoentzat eta/edo desgaitasun funtzionala dutenentzat. Lehen erorikoak prebenitzeko tailerra izan da, joan den otsailaren 12an eta 13an emana. 17 lagun bildu ziren. Bigarrena, lehen sorospenei buruzkoa (argazkian), martxoaren 5ean egin zen, eta parte-hartzaileei behar diren ezagutzak eta trebetasunak eman zitzaizkien larrialdiko egoerei aurre egiteko.



■ Los centros diurnos comunitarios Lapurbide y Ostoki, en colaboración con el Centro de Salud, han organizado dos talleres preventivos dirigidos a personas mayores de 60 años y/o con diversidad funcional. El primero de ellos, sobre prevención de caídas, se impartió en dos sesiones el 12 y 13 de febrero y reunió a 17 personas. El segundo, sobre primeros auxilios (en la foto), tuvo lugar el 5 de marzo y sirvió para proporcionar a las y los participantes los conocimientos y habilidades necesarias para afrontar situaciones de emergencia.

Eskutik programaren tailer berriak / Nuevos talleres del programa Eskutik

■ Joan den otsailaren 25ean, 2025eko Eskutik familiendako tailer egitaraua abiatu zen. Hasteko, Anahi Sarasola prestatzaile eta terapeutak "Begirada bat komunikazio ez bortitzetik" saioa eman zuen. Gero, martxoaren 25ean, Itxaso Torregrosa sexólogoak "Gaurko txikiak, biharko helduak. Nola hitz egin etxean sexualitateari buruz" tailerra eman zuen euskaraz. Aurrera begira, apirilaren 14an, Ihintza Nuñezek "Familien autoestimua-ren eta autozaintzaren garrantzia hazkuntzan" tailerra emanen du. Eta maiatzean bi saio egiteko asmoa dago, biak ere emozioak eta sentimenduak lantzeko: ipuin-kontaketa saio bat, Amaia Elizagoienek eskutik (hilak 14) eta, tailer bat, Ihintza Nuñezek zuzendua (hilak 21).

■ El pasado 25 de febrero se inició la programación de talleres para familias Eskutik de 2025 con la sesión "Una mirada desde la comunicación no violenta" impartida por la formadora y terapeuta Anahi Sarasola, mientras que el 18 de marzo, la sexóloga Itxaso Torregrosa ofreció el taller en euskera "Gaurko txikiak, biharko helduak. Nola hitz egin etxean sexualitateari buruz". El 14 de abril Ihintza Nuñez impartirá el taller "La importancia del autocuidado y la autoestima de las familias en la crianza". Y en mayo están previstas dos sesiones para trabajar las emociones y los sentimientos: un cuentacuentos a cargo de Amaia Elizagoien (día 14) y un taller dirigido por Ihintza Nuñez (día 21).

Giro ona Auzoen arteko Egunean

Buen ambiente en el Día Interbarrios

Aurten, Antsoain Landatuz elkarteak parte hartu du, Gazteskolako neska-mutilekin batera, Iruñerriko Arreta eta Prebentzio Komunitariorako Zerbitzuek antolatutako topaketan, auzo bakoitzeko gazteen arteko ezagutza sustatzeko eta harremanak hobetzeko. Auzoen arteko Eguna martxoaren 15ean egin zen, hainbat jarduera eta dinamikaren bidez. Goizean, Iruñeko alde zaharrean elkartuta, elkarteek hainbat jolas eta ekitaldi egin zituzten elkar ezagutzeko. Ondoren, bazkaria egin eta bazkalondo luze bezain girotua izan zuten.

Este año el encuentro organizado por los Servicio de Atención y Prevención Comunitaria de la Comarca de Pamplona para fomentar el conocimiento y mejorar las relaciones entre la juventud de cada barrio contó con la presencia de Antsoain Landatuz, que participó junto con las chicas y chicos de Gazteskola. El Día Interbarrios se celebró el 15 de marzo con distintas actividades y dinámicas. Por la mañana, las asociaciones se reunieron en el casco viejo de Pamplona, donde organizaron diversos juegos y actos para conocerse. A continuación celebraron una comida y continuaron la fiesta hasata bien entrada la tarde.

Gazteak buru-belarri inauterietan / La juventud se suma a la fiesta del Carnaval

Aurten ere herriko gazteek gogoz parte hartu dute inauterietan; zehazki, 'Charlie eta txokolate-fabrika' ren eskutik. Horrela, otsailaren 28an, ostiralekin, hainbat jolas eta trebetasun proba gozatu zituzten, Gaztehandik antolaturik; eta martxoaren 2an, igandearekin, jarduera bat egin zuten Iñaki Ochoa de Olza institutuko DBHko 4. mailako ikasleekin batera. Ikasleek, hain zuzen ere, haurrendako jolasak antolatu zituzten, ikasturte bukaerako bidaia-rako dirua ateratzeko. Izan ere, Gaztehandi taldeak txokolatea prestatu eta zerbitzatu bitartean, ikasleek pintxoak, gailetak eta bizkotxoak saldu zituzten.



Los y las jóvenes de la localidad se volcaron un año más con el Carnaval y en esta ocasión lo hicieron de la mano de 'Charlie y la fábrica de chocolate'. El viernes 28 de febrero disfrutaron de diferentes juegos y pruebas de habilidad organizados por Gaztehandi; y el domingo 2 de marzo realizaron una actividad conjunta con el alumnado de 4º del IESO Iñaki Ochoa de Olza. Los/as alumnos/as programaron juegos para txikis cuya recaudación se destinará a su viaje de fin de curso. Mientras, el grupo Gaztehandi preparaba y repartía el chocolate, los y las estudiantes vendieron pintxos, galletas y bizcochos.

Euskarazko ekitaldiak Ezkabako Gotorlekuko ihesaren inguruan / Actividades en euskera en torno a la fuga del Fuerte de Ezkaba

Harrobik euskarazko bi ekitaldi antolatu ditu Udaleko Euskara Zerbitzuarekin batera, biak ere Ezkabako ihesaldiari buruzko proiektu baten baitan. Horrela, martxoaren 29an, dokumental bat eman eta, ondotik, solasaldia egin zen eta, apirilaren 12an, berriz, bisita gidatua egingen da Ezkabako gotorlekura.

Harrobi ha organizado, junto con el Servicio de Euskera del Ayuntamiento, dos actividades en euskera que se enmarcan dentro de un proyecto sobre la fuga de Ezkaba. El sábado 29 de marzo se proyectó un documental seguido de una charla, y el 12 de abril está programada una visita guiada al fuerte de Ezkaba.




2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugun

EMAN IZENA!



www.euskaraldia.eus






‘Desberdinkeria errealitate, justizia lortzeke’, M-8aren leloa

‘Desigualdad real, justicia pendiente’, lema del 8-M



Antsoainek kultura eta aldarrikapena uztartu dituzte martxoaren 8a ospatzeko, ekitaldi sorta zabala antolatuta. Aurten, ekitaldi nagusiak, martxoaren 7an, ostiralarekin, egin ziren. Horrela, goizeko 10:30ean, hamarretako animatua egin zen Lapurbide zentroan, eta ondoren, kale bilkura 12:00etan Udaletxe plazan, udaleko politikariek nahiz teknikariek eta Antsoaingo bizilagunek parte hartuta. Arratsaldean, berriz, Arantxa Echeverría-ren “Chinas” filma eman zen Antsoaingo antzokian; 9 urteko bi neskatik protagonista, bakoitzaren bizitza-egoera arras ezberdina dela. Sarrera doakoa izan zen, gonbidapenarekin, eta filma ikusi ondotik, zine-forum saioa egin

Ansóain celebró el 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, con un amplio y variado programa cultural y reivindicativo. Los actos centrales tuvieron lugar este año el viernes 7 de marzo. A las 10:30 se celebró un animado almuerzo en el centro Lapurbide, seguido de una concentración a las 12:00 en la Plaza Consistorial, en la que tomaron parte personal técnico y político municipal y vecinas y vecinos de Ansoáin. Por la tarde, el Teatro de Ansoáin acogió la proyección de la película de Arantxa Echeverría “Chinas”, cuyas protagonistas son dos niñas de 9 años con situaciones vitales muy dispares. La entrada era gratuita con invitación y tras la proyección se celebró



zen, María Castejón zine kritikari eta genero berdintasunaren arloko adituak zuzendua.

Hilean zehar, bestelako jarduerak egin ziren adin honetarako eta hartarako. Martxoaren 12an, Jaione Urtasunek haurrendako “Pontxarekin denok berdin” ipuin-saioa eskaini zuen euskaraz liburutegian, berdintasunaren inguruko istorio bat, alegia. Bestalde, ihes-gela bat antolatu zen euskaraz gazteentzat Clara Campoamor andreakin inguruan, martxoaren 16an, Harrobin. Halaber, bi antzerki ikuskizun eman ziren helduentzat: “Akelarre”, Virginia Imazen eskutik hilaren 14an, eta “Manólogo”, Irantzu Varelaren eskutik, hilaren 21ean.

un cinefórum dirigido por la crítica de cine y especialista en Igualdad de Género María Castejón.

A lo largo del mes, hubo además otras actividades para públicos de distintas edades. El 12 de marzo, Jaione Urtasun ofreció una sesión

de cuentacuentos infantil en euskera en la Biblioteca, en la que narró “Pontxarekin denok berdin”, una historia en torno a la igualdad. Dirigido a la juventud se organizó un escape en euskera en torno a la figura de Clara Campoamor el 16 de marzo en Harrobi. Y el público adulto pudo asistir a dos espectáculos teatrales: “Akelarre”, de Virginia Imaz, el día 14 y “Manólogo”, de Irantzu Varela, el día 21.

Tailerra maiatzean, iruzurgilearen sindromea nola gainditu ikasteko

Taller en mayo para aprender a superar el Síndrome de la Impostora

Ostoki zentro komunitarioan, iruzurgilearen sindromea iruzurko tailer bat egingen da maiatzaren 5ean, 12an eta 19an, Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin elkarlanean. Saioak 18:00etatik 20:00etara egingen dira eta Anahí Sarasolak emanen ditu. Diplomaduna da terapia okupazionala, bitartekaria eta terapeuta. Izena 682 54 62 56 zenbakira deituz eman behar da edo igualdad@ansoain.es posta elektronikora idatziz.

El centro comunitario Ostoki acogerá los días 5, 12 y 19 de mayo un taller sobre el Síndrome de la Impostora organizado por el Servicio Municipal de Igualdad con la colaboración del Instituto Navarro para la Igualdad. Las sesiones se realizarán de 18:00 a 20:00 horas y serán impartidas por la diplomada en Terapia Ocupacional, mediadora y terapeuta Anahí Sarasola. Las inscripciones pueden realizarse a través del teléfono 682 54 62 56 y del correo elec-

tailerrean aztergai izanen dira sindromearen zergatiak eta ezau-garriak. Izan ere, autoestimurik eza dela eta, emakume askok duda egiten dute etengabe beren ahalmenaz, sentitzen dute ez dutela behar bezalako mailarik eta iruzurtitzat jotzen dute beren burua. Alde teorikoa azaldu eta gero, lan pertsonala egingen da, emakume bakoitzak ikus dezan nola eragiten dion iruzurgilearen sindromeak eta ikas dezan zer estrategia erabili sindromea aurre egiteko.

trónico igualdad@ansoain.es. El taller analizará las causas y características de este síndrome caracterizado por una falta de autoestima, que lleva a muchas

mujeres a dudar constantemente de su potencial, a sentir que no están a la altura y verse a sí mismas como un fraude. Tras esta primera parte teórica, se realizará un trabajo personal en el que cada mujer pueda observar cómo le afecta el Síndrome de la Impostora y dotarse de estrategias para desafiarlo.



Klimaterio eta Menopausiaren tailerraren harrera on-ona / Buena acogida del Taller de Climaterio y Menopausia

■ Harrera bikaina izan du Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako Klimaterio eta Menopausia tailerrak. Saioak, María Muñoz Cobok emanak, 12na lagunek bi taldetan banaturik egin ziren irailetik otsailera bitarte, Ostoki zentro komunitarioan. Menopausiarekin batera datozen aldaketak izan zituzten hizpide, nola aurre egin, eta emakumeek elkarri laguntza eman beharra. Parte-hartzaileek oso ontzat jo zuten ekimena (8,5eko nota eman zuten, jarduerak ondotik egindako inkestetan).

■ El Taller de Climaterio y Menopausia, organizado por el Servicio Municipal de Igualdad, tuvo una excelente acogida. Las sesiones, impartidas por María Muñoz Cobo, se desarrollaron en dos grupos de 12 personas cada uno entre septiembre y febrero en el centro comunitario Ostoki. En ellas se habló de los cambios que acompañan a la menopausia, de la manera de afrontarlos y de la necesidad de apoyo entre mujeres. Las participantes valoraron muy positivamente la iniciativa (con un 8,5 de media en las encuestas realizadas al finalizar la actividad).



**ansoain
CHAPIASTAS**

Hermanos Noain, 15
Ansoain-Antsoain
Tel. 948 590 818



ESCUELA NIDHAN

T. 626 614 327 • Berriobide, 36 (Antsoain)
www.escuelanidhan.com @escuela_nidhan

¿Quieres desconectar del ajetreo diario?
Descubre la calma y el bienestar a través del **YOGA**.
Horarios flexibles, estilos variados
y clases para todos los niveles.

Taxi-bonu zerbitzua eskatzeko epea zabalik

Abierto el plazo para solicitar el servicio de bonotaxi

Antsoaingo Udalak taxi-bonu zerbitzua izeneko laguntza eskaintzen die hilero % 33tik gorako desgaitasuna dutenei eta garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonaei, taxi zerbitzua eskuratzeko aukera izan dezaten. ACODIFNA elkarteak kudeatzen duen aurre-ordainketa txartelaren bidez ordaintzen da (Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Nafarroako Koordinakunde Elkarteak).

Txartela pertsonala eta besterenezina da eta oso funtzionamendu erraza du. Taxi bat hartzen den bakoitzean, taxi-bonuaren bidez

ordaindu behar da, beste edozein banku-txartel balitz bezala. Bi hilean behin, 80 euroko laguntza sartzen da txartelean (40 euro hilero). Dirua sartzen den unean, aurreko hilabeteetako saldo soberakina kentzen da, hau da, ez daiteke metatu gastatu ez den saldoa. Rural Kutxako edozein kutxazainetan kontsultatu daiteke saldoa.

Inolako zalantzarik baduzu edo argibidea behar baduzu, jo ACODIFNAko egoitzara (Labayen Doktorea, 15 behe) edo deitu telefonoz (948 366 739 / 676 993 990).

El servicio de bonotaxi es una ayuda mensual que ofrece el Ayuntamiento de Ansoáin para que las personas con grado de discapacidad superior al 33% y con dificultades para utilizar al transporte colectivo puedan acceder a un servicio de taxi. Se paga a través de una tarjeta prepago gestionada por ACODIFNA (Asociación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Navarra).

La tarjeta es personal e intransferible y su funcionamiento es muy sencillo. Cada vez que se coge un taxi, se realiza el pago con el

bonotaxi, como si fuera otra tarjeta bancaria. Cada dos meses se recarga la tarjeta con una ayuda de 80 euros (40 euros por mes). En el momento de la recarga, se retira el saldo sobrante de los meses anteriores, es decir, no se puede acumular el saldo no gastado. Se puede consultar el saldo en cualquier cajero de Caja Rural.

Si tienes alguna duda o necesitas más información, contacta con ACODIFNA en su sede (Doctor Labayen, 15 bajo) o por teléfono (948 366 739 / 676 993 990).

40 lagun inguru aritu dira 2024ko mendekotasun eta autonomia programan / Cerca de 40 personas participaron en el Programa de dependencia y autonomía 2024

■ Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak hainbat programa eskaintzen dizkie Antsoaingo herritarrei; haien artean, norberaren autonomia sustatzeko eta mendekoak artatzeko programa. Haren helburua da, batetik, mendekotasunean diren pertsonen autonomia baloratu, bultzatu eta sustatzea eta, bestetik, mendekoak beren ohiko bizitokian ahalik eta denborarik gehien bizi daitezen ahalbidetzea.

2024an, Antsoaingo 38 bizilagunek parte hartu zuten programan; haietariko 35ek etxeko laguntza zerbitzuaren bidez.

■ Uno de los programas que presta la Mancomunidad de Servicios Sociales a la ciudadanía de Ansoáin es el Programa de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en situación de Dependencia. Su objetivo es valorar, apoyar y fomentar la autonomía de las personas en situación de dependencia y posibilitar la permanencia en su medio habitual el máximo tiempo posible.

En 2024 en Ansoáin participaron en el programa 38 personas usuarias, 35 de ellas a través del Servicio de Ayuda a Domicilio.

HEZKUNTZA / EDUCACIÓN

Ikastetxearen omenaldia Nati Sancet irakasleari / Homenaje del Colegio a la profesora Nati Sancet

■ Joan den otsailaren 3an, Nati Sancet Tanco irakasleak agur esan zion Ezkaba ikastetxeari, bertan 22 urtean irakasle aritu eta gero. Azken agurra emateko ekitaldian, Marta Díez alkateak lore sorta bat eta zapi bat eman zizkion. Lankideek, gainera, txalo zaparrada eskaini zioten irakasle gelan eta, handik egun batzuetara, bazkaria egin zuten.

■ El pasado 3 de febrero Nati Sancet Tanco dijo adiós a 22 años como docente en el Colegio Ezkaba. El acto de despedida contó con la presencia de la alcaldesa Marta Díez, quien le hizo entrega de un ramo de flores y de un pañuelo. Además, sus compañeras/os le dedicaron una sonora ovación en la sala de profesores y unos días más tarde celebraron una comida.



Maiatza, euskararen hilabetea

Mayo se convierte en el mes del euskera

Maiatzean euskararen inguruko hamaika ekitaldi egingen dira Ansoainen. Izan ere, maiatzaren 5etik 15era egingen den 'Euskararen Udaberria' udal programaz gain, aurten Euskaraldia burutuko da hilaren 15etik 25era. Bada, bi ekimen horiek direla eta, honatz ekitaldiak egunez egun: Euskaraldian izena emateko epea (martxoaren 15ean hasiko da); Euskaraldiaren gunetik ibiltaria Lapurbide plazan (apirilak 3, 17:00etan); bertso-afaria (maiatzak 9), Euskararen Eguna (maiatzak 10) eta Kirolaren Eguna euskaraz (eguna zehazteko dago).

